



Arartekoaren ebazpena, 2010eko maiatzaren 25ekoa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatzen zaio Arabako Lurralde Historikoan babesgabezia-egoeran dauden adingabeen tutoretza bere gain hartzeko duen legezko beharra bete dezan, tutorea izanagatik dagozkion babes-neurriak burutu ditzan, adina zehazteko probak egin behar direnean aurreikusitako eskubideak eta bermeak bete ditzan, eta adin-nagusitasunera egoitza-baimenik gabe heltzen badira, egoitza-baimena ematea gomenda dezan.

Aurrekariak

1. Arabako Foru Aldundiaren egoitza-zentroetan hartuta dauden babesik gabeko adingabe atzerritarren egoeran eragina duten jarduera batzuen berri izan du Arartekoak.

Arartekoko langileek 2009ko azaroaren 13an Bideberri I eta II babes-baliabideetara eta Carlos Abaitua pisura egin zituen ikustaldietan jakin zuenez, adingabe gehienek ez zeukaten tutoretza bereganatzeko foru-agindurik eta zitazio judizialak jasotzen ari ziren. Ikustaldi horietan, koordinatzaileekin, hezitzaileekin eta adingabeekin hizketan aritu ziren; instalazioak ikuskatu ziren eta zentroen kudeaketa-tresnak ezagutu ahal izan zituzten (2009ko ohiko txostenaren II. atala, 338-343. orr.).

Beraz, foru aldundiari honako gertakari hauei buruzko informazioa eskatu genion:

- a) Foru Aldundiak adingabea dela dioen eta agiririk ez duen pertsona bat aurkitzen duenean daukan jarduteko protokoloa zein den, eta pertsona horrek agiriak badauzka, aldundiak zein **izapide** egiten dituen pertsona aurkitzen duenetik tutoretza bere gain hartzen duen arte, babesik gabeko egoeran badago.
- b) Foru Aldundiak adingabeek dituzten eskubide hauek bete behar ditu: **entzunak izateko eskubidea eta babeserako eskubidea**. Adingabeari bere interesei eragiten dien informazioa helarazten duen entzunaldi izapidearen kopia eta abokatua izateko duen eskubidearen kopia, halakorik balego.
- c) Foru Aldundiak auzibidean salatu dituen nerabeen datuak, egoitza baliabidean **sartzeko data** eta Arabako Foru Aldundiaren babes baliabidean **igarotako denbora**.
- d) **2009ko azaroaren 13an** Foru Aldundiak hartutako adingabe atzerritarren datuak eta, halakorik balego, tutoretza hartu zeneko data eta egoitza



baimena eskatu zeneko data. Babesik gabeko egoeran ez daudela erabaki bada, tutoretza hartzeko izapiderik ez egin izanaren arrazoiak eta egoitza baimena eskaera ez izapidetzearen arrazoiak.

- e) Espedienteak hizpide dituen gertakariei eragiten dien beste edozein datu interesgarri.

Era berean, foru aldundiari aurretiaz zenbait gogoeta helarazi genizkion. Errepikapenak saihestearren, jarraian transkribatuko ditugu.

2. Hainbat aldiz eskatu diogu foru aldundiari informazio hori bidal ziezagula. Azkenean, maiatzaren 13an igorri digun erantzuna hauxe izan da:

Jarduera-protokoloari dagokionez [a) puntua], foru aldundiak adierazi digu badela jarduera-protokolo bat, baina eragozpen hau duela: *"pero que el papel no ha facilitado la coordinación y por tanto ha perdido la mejor de sus oportunidades, la de posibilitar que las instituciones implicadas puedan generar soluciones a los problemas"*.

Jardueran bi momentu bereizten ditu:

"1º.-Antes del mes de febrero de este año, o primera fase:

El protocolo de referencia fue presentado por iniciativa de esta Institución Foral tanto a la Fiscalía de la Audiencia Provincial de Álava como a la Subdelegación de Gobierno ya en el año 2008.

Cúmpleme señalar cómo en éstos u otros encuentros auspiciados desde esta Institución Foral se ha evidenciado la preocupación por la aparenta discrepancia de edad de los chicos atendidos, con el fin de que se analizara más en profundidad su edad, expedición de documentos, redes de apoyo, etc. Igualmente hemos facilitado informaciones u documentación sobre las actuaciones a este respecto en otras Comunidades Autónomas y se ha ofertado acciones de coordinación."

Ondoren praktikaren berri ematen du:

-“Son muy contadas las ocasiones en que los chicos se personan en los centros u oficinas forales directamente.

-Habitualmente se personan en los servicios de Urgencias del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, o son localizados por las fuerzas de seguridad o cuerpos de policía locales.

-En cualquiera de los casos son presentados al centro por las fuerzas de seguridad, entendemos previa comunicación a la Fiscalía. Salvo el



pasaporte en el caso de los documentados no les acompaña ningún otro documento.

-El centro de Protección prepara el acuse de recepción y procede a la atención inmediata del chico.

-Al día siguiente es acompañado por el personal del Centro de Protección a las oficinas del Área del Menor y Familia, donde se efectúa el trámite de audiencia. Se adjunta copia del trámite de audiencia.

-Desde el centro se concertaba en ese momento cita a través de los Servicios de Atención al Paciente para prueba radiodiagnóstica en el Hospital de Txagorritxu. Siempre con conocimiento y aceptación firmada del chico.

-Además desde el Centro de Protección se solicita cita con la Policía Nacional para efectuar registro deca-dactilar y demás actuaciones propias de este cuerpo. El Centro de protección entrega en ese acto a la Policía los datos que se recogen en el trámite de audiencia y la Policía recoge sus pasaporte, cuando están documentados, para realizar las comprobaciones de autenticidad técnica.

-Recibida la prueba radiodiagnóstica y reseña policial el Consejo del Menor resuelve la guarda/atención inmediata donde se recogen todos los datos que se conocen relativos a la documentación, relato de llegada, prueba radiodiagnóstica, datos de la reseña policial, (datos todos ellos que en su caso evidencian la posible existencia de discrepancias en cuanto a fechas de nacimiento y de edad) y se remite copia a la Fiscalía y Subdelegación de Gobierno. A esta última con todos los datos conocidos referidos al chico en orden a facilitar su tarea de localización de familiares en el país de origen de acuerdo con el citado protocolo y a fin de que puedan dictar resolución de permanencia, en su caso.

-No consta recepción de decreto de fiscalía de determinación de edad (sí de validación del pasaporte y cierre de diligencia preprocesales una vez recibidos informes de la Brigada Provincial de Extranjería sobre la autenticidad técnica de los pasaportes).

-No se ha llegado a recibir resolución de permanencia en el país por parte de la Subdelegación de Gobierno.

-Agotados los plazos máximos legalmente establecidos de 6 meses sin que esta información se reciba se resuelve la tutela que es asimismo comunicada a la fiscalía y Subdelegación."

Bigarren fasea





Adierazi digun funtsezko aldaketa honako hau izan da: *“que los chicos no realizan la prueba radiodiagnóstico gestionada por el Centro. Se solicita en los casos que han llegado que la Fiscalía determine la edad.*

A partir de agosto de 2009 tras entrevista con la Fiscalía de la Audiencia Provincial, en la que nuevamente se exponen las sospechas referidas a la discrepancia de edad, el riesgo de que determinados colectivos de persona estuvieran siendo objeto de un presunto delito de falsificación y otros abusos hacia las personas inmigrantes, así como el hecho de que pudiera darse la circunstancia de utilización indebida del acogimiento residencial con el consiguiente riesgo para las personas realmente menores de edad, se interpone denuncia ante el Juzgado de Guardia hasta un total de 68 chicos denunciados, En ese tiempo de tramitación judicial de las denuncias no se han resuelto sus tutelas.

A partir de febrero de 2010 se han solicitado pruebas de determinación de edad de un total de 72 ya acogidos. Y de 5 chicos que ya habían sido reseñados como mayores de edad en otras fiscalías o llegan indocumentadas. Así mismo en la medida que la Audiencia Provincial ha resuelto las denuncias, el Consejo del Menor va asumiendo las tutelas correspondientes, sin perjuicio del resultados de las pruebas de determinación de edad solicitadas”.

b) Puntu horri dagokionez, Arabako Foru Aldundiak entzunaldiaren izapidea betetzen duela jakinarazi du:

“A la llegada del chico, habitualmente el siguiente hábil a su llegada al centro, es acompañado a las oficinas del área para realizar el trámite de audiencia. En dicho trámite se le informa entre otras cuestiones cumplidamente del derecho de defensa que le asiste. Para más abundar en las debidas garantías este trámites se realiza con presencia del traductor siempre que es necesario”.

c) Auzibidean salatu dituzten nerabeen datuak. Bidalitako informazioa 116 nerabeei zegokien: horietatik 68 salatu egin dituzte eta 31 kasutan informazio osagarria eskatu zitzaion Atzerritartasun arloko Probintziako Brigadari.

d) Adingabeen tutoretza bere gain hartzeko datari buruzko datuak. Bidalitako informazioaren arabera, 32 adingaberen tutoretza bere gain hartu du, eta ez du tutoretzarik bereganatu beste 84 adingaberen kasuan. Gainera, aldundiak ziur daki 25 adingaberentzako egoitza-baimena eskatu dela, eta 91 adingaberen kasuan ez dagoela idatziz jasota egoitza-baimenik eskatu den, (baina argitu digu agian beste baliabide batzuen bitartez eskatuko zutela baimen hori).

3. Arartekoak bakarrik dauden adingabe etorkinen 41 kexa ere jaso ditu azken hilabeteetan. Arabako Foru Aldundiak babesgabezia-egoeran dauden haurrei



zuzendutako baliabideen bidez jasotzen zuten arreta adingabe horiek, eta adierazten zuten, Aldundiak ez zien ziurtatu tutoretza bere gain hartzen zuenik eta ez zuen egoitza-baimenik eskatu.

Adingabeek Babeserako Erakundearen Zentroetan sartzean adingabeak zirela bermatzen zuen dokumentazioa zeramaten.

Arabako Foru Aldundiak erantzun duenez, adingabe horiek, hezur-probaren arabera, batzuek 18 urte eta besteek 19 edo gehiago zituzten. Hezur-probak adierazten zuen adinaren eta haien pasaporteek ziurtatzen zuenaren arteko aldea zela eta, salaketa jarri dio Guardiako Instrukzioko Epaitegiari gutxienez 23 aldiz (2009ko abuztuan, urrian eta azaroan) eta, beste batzuetan, euren txostenaren inguruko informazio osagarria eskatu dio Atzeritarren Brigadari (2009ko urrian eta azaroan).

Kexa hori kontuan hartuta, bertan azaldutakoa eta adierazitako aurrekariak aztertu eta gero, gogoeta hauek helarazi nahi dizkizugu:

Gogoetak

1. Arabako Foru Aldundia Arabako Lurralde Historikoan babesgabezia-egoeran dauden adingabeak babesteko eskumena duen erakundea da. Erakunde horrek, adingabe bat babesgabezia-egoeran dagoela ikusten duenean, **tutoretza bere gain hartu behar du**.

Kode Zibilaren 172. artikulua:

“Kasuan kasuko lurraldean adingabeen babesaz arduratzen den herri-erakundeak antzematen duenean adingabea babesgabezia-egoeran izan daitekeela, erakunde horrek lege-aginduz adingabearen gaineko tutoretza du, eta beharrezkoak diren babes-neurriak hartu behar ditu adingabe hori zaintzeko. Berrogeita zortzi orduko epearen barruan, herri-erakundeak horren berri eman behar dio Fiskaltzari, eta, legezko forma erabiliz, jakinarazpena egin behar die guraso, tutore edo zaintzaileei...”

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 57. artikulua:

“Haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen herri-administrazioak uste baldin badu haurra edo nerabea babesgabezia-egoeran dagoela, Kode Zibilaren 172. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jardungo du. Horretarako, bere gain hartuko du delako haur eta nerabearen tutoretza, eta babes-neurri egokiak erabakiko ditu. Hori guztia ministerio fiskalari jakinaraziko dio”.



2. Arabako Foru Aldundiak ez du adingabe atzerritarren tutoretza (gehienak Saharaz hegoaldekoak) bere gain hartu modu sistematikoan, hau da, ez du bere gain hartu babeserako baliabideen bidez arreta jasotzen ari ziren adingabeen tutoretza. Gainera, haien aurkako salaketa jarri du ustezko agiri faltsuak aurkezteagatik. Une honetan, prozedura penala artxibatu den kasuetan, tutoretza bere gain hartzen ari da, erakunde honetara bidali duen erantzunean adierazi denez.

Arabako Foru Aldundiak arrazoi hau eman du tutoretza bere gain ez hartzeko: ez zirela adingabeak.

Aplikatu beharreko araudiak xedatzen duenez, Fiskaltzak zehaztu behar du haien adina, eta horretarako, osasun erakunde egokien lankidetzatza izango du, lehentasunez behar diren probak egingo dituztenak. Bestalde, garrantzitsua da gogoratzea auzitegi-medikuen betekizunetako bat dela Fiskaltzari bere eginkizunak betetzen laguntzea eta laguntza teknikoa ematea.

Atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoaren 35. artikulua:

“3. Estatuko segurtasun-kidego eta -indarrek atzerritar agirigabe bat aurkitzen dutenean, eta segurtasunez ezarri ezin denean atzerritar hori adingabea den ala ez, adingabeak babesteko eskumenak dituzten zerbitzuek beharrezko arreta eskainiko diote atzerritar horri, adingabearen babes juridikoari buruzko legerian ezarritakoarekin bat etorriz. Horren berri emango zaion Fiskaltzari, eta Fiskaltzak atzerritarren adina zehaztuko du; horretan lagunduko dute kasuan kasuko osasun erakundeek eta erakundeok lehentasunez egingo dituzten beharrezko frogak.

4. Behin atzerritarren adina zehaztuta, atzerritarra adingabea izanez gero, Fiskaltzak adingabe hori jarriko du adingabeak babesteko zerbitzu eskudunen esku.”

Adina zehazteko probak adina bermatzen duen agiririk ez dagoenean eta adingabea dela zalantzan egoteko oinarriak daudenean egingo da. Baita pasaporte faltsua izan daitekeelako susmoak daudenean. Halakoetan Fiskaltzak adina zehazteko probak egiteko baimena eman ahal izango du.

Fiskaltzak ez zuen adingabe horien adina zehazteko prozesuan parte hartu lehen fasean, hau da, 2010eko otsailera arte, aldundiaren erantzunaren arabera. Aurrera eramandako hezur-probak Arabako Foru Aldundiak erabakita egin ziren, eta ez Fiskaltzak erabakita. Lege Medikuntzako Euskal Erakundeak ere ez du esku hartu. Bigarren fasean, aldiz, hauxe adierazi zuen: *“A partir de febrero de 2010 se han solicitado pruebas de determinación de edad de un total de 72 ya acogidos. Y de 5 chicos que ya habían sido reseñados como mayores de edad en otras fiscalías o llegan indocumentadas. Así mismo en la medida que la*



Audiencia Provincial ha resuelto las denuncias, el Consejo del Menor va asumiendo las tutelas correspondientes, sin perjuicio del resultados de las pruebas de determinación de edad solicitadas”.

Adina zehazteko proba medikoak egiteak garrantzi handia dauka, izan ere, pertsona adingabea dela zehazten bada, haur hori babestu beharra dago eta hainbat eskubide onartzen zaizkio. Proba horiek behar adina bermerekin eta protokoloa jarraituz egiteko beharrak Arartekoa kezkatzen du. Erakunde honek jarduera bat ofizioz egin du (60/2009/310) egoitza harreraren baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa betetzeko helburuarekin:

“Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, beren sail eskudunen bitartez, inoren kargura ez dauden adingabe atzeritarren premiazko harrerarako jardun-protokolo komun bat adostuko dute esku hartzen duten gainerako erakundeekin, fiskaltzekin eta segurtasun-indarrekin bereziki. Protokolo hori Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan esku hartzeko baldintzak, pertsona horien eskubideen errespetua bermatuko duten baldintzak, aplikatzeko izango da”.

Erakunde honen ustez, probak adingabearen adina egiaztatzen duten bestelako proba baliozkorik ez dagoenean bakarrik egin behar dira, hau da, pasaportea edo jaiotza-ziurtagiria behar bezala legalizatuta ez dituenean. Garrantzitsua da nabarmentzea, adituek, elkarteek eta nazioarteko erakundeek (Royal Collage of Paediatrics and Children Health Status, Acnur, Save the Children, Nazio Batuen Erakundeko Umeen Eskubideen batzordea...) adierazi duten moduan, oso zaila dela adingabe baten adina zehaztasunez finkatzea. Horregatik, beharrezkoa da probak teknologia egokiarekin egitea eta hainbat adituk, Lege Medikuntzako Euskal Erakundea osatzen dutenek, adibidez, bakoitzak bere aldetik proba horiek baloratzea.

Pertsona baten adina ezin da zehaztasunez egiaztatu, eta horregatik, goranzko eta beheranzko errore-marjina aipatu ohi da. Kontuan hartu beharreko marjina beheranzkoa da, adingabearen interes gorenaren printzipioari jarraiki.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak, jada 2/2001 Instrukzioan, honela zioen: *“Proba medikoek ez dute inoiz adin zehatzik eskaintzen; alderantziz, tarte gutxi gorabehera zabala finkatzen dute eta horren mugen artean dago, errore marjina txikiarekin, subjektuaren benetako adina. Hori dela-eta, beste daturik lortu bitartean eta pertsona adinez nagusia edo adingabea den zehazte aldera, bere adina tarte horren beheko mugatzat jarri dena izango da”.*

Era berean, garrantzitsua da adingabearen eskubideak errespetatzea, hala nola, entzuna izateko eskubidea, hizkuntza ofizialak ezagutzen ez baditu kalitatezko interpretazioa jasotzeko eskubidea eta zehaztu zaien adinarekin ados ez badaude defentsarako eskubidea errespetatzea. Adingabeei aldeztetik jakinarazi behar zaie adina zehazteko proba batzuk egingo zaizkiela eta horiek



uko egin diezaieketela. Gainera, egiteak eta ez egiteak dakartzaten ondorioen berri eman behar zaie.

Defentsa-erakundeek deklarazioan hauxe adierazi zen bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruz herri-administrazioek dituzten erantzukizunez (deklarazio hori 2006ko urrikoa da eta hiru aldundietara bidali zen): *"Adina zehazteko aurretiazko proba medikoak zalantza dagoen kasuetan bakarrik egingo dira eta aditu independenteen aholkularitzarekin eta proba fisiko, sozial eta psikologikoak barne hartzen dituen teknologia modernoarekin egin behar lirateke. Erreferentziazko adina egindako proba medikoetatik ateratzen den txikiena izango da beti"*.

3. Pasaporte **agiri ofizial balioduna da pertsonaren nortasuna frogatzeko**. Agiria faltsua izan daitekeelako susmoak baldin badaude, haren baliozkotasuna zalantzan jartzen duten eginbideak bideratu behar dira, berme guztiak bete behar dituen prozedura kontraesankor baten baitan. Atzerritarren eskubideak eta betebeharrak eta gizarteratzea arautzen duen Lege Organikoaren 4. artikulua hauxe ezartzen du: *"1. "Espainiako lurraldean dauden atzerritarrek sorterriko agintari eskudunek eman dizkieten eta beren nortasuna egiaztatzen duten agiriak bai eta Espainian duten egoera egiaztatzeak kontserbatzeko eskubidea eta betebeharra dute"*.

2009ko azaroaren 13an egindako bisitan jakin genuenez, hainbat adingabek zitazio judizialak jasotzen ari ziren. Informazio-eskaerari emandako erantzunean, Foru Aldundiak erantzun digu adingabe asko salatu dituztela agiri faltsuak zituztelako, "gaztearen adin ezberdintasuna ikusita".

Pasaporte herrialde batek **nazioarteko baliozkotasunarekin** ematen duen agiria da, eta hainbat lege-arau, nazioarteko hitzarmen eta segurtasun neurri errespetatzen ditu. Nazioarteko komunitateak, NBERen eta Hegazkineria Zibilaren Nazioarteko Erakundearen (HZINE) bidez, jarduerak eta estandarrak ezarri ditu nazioarteko bidaietarako eta horien agirien prozeduretarako. Pasaporteak pertsonak eta euren herritartasuna identifikatzeko erabiltzen diren agiri ofizialak dira. Hegazkineria Zibilaren Nazioarteko Erakundea (HEZINE) Nazio Batuen erakunde berezitua da, Chicagoko Konbentzioan sortua. Konbentzio hori 1947an sartu zen indarrean nazioarteko hegazkineria zibilaren garapen segurua eta antolatua sustatzeko. 188 estatuk osatzen dute, horien artean Ginea, Gambia, Maroko edo Mali, adingabe horien jaioterriak direnak. Erakunde honek hegazkineriaren bidaien segurtasunerako, babeserako, eraginkortasunerako eta erregulartasunerako beharrezkoak diren arauak eta erregelamenduak ezartzen ditu. Irakurketa mekanikoko pasaporteak sortzeko eta erabiltzeko gomendioak ere eman ditu. Nazio Batuen Biltzarrak egintza ugari burutu ditu kontrolen eraginkortasuna indartzeko eta estatuak pasaporteen segurtasuna eta bermea handitu ditzaten eta haien artean lagundu daitezen.





Arabako Foru Aldundiak ez die baliozkotasunik eman adingabeen pasaporteeri. Arabako Foru Aldundiak errugabetasun-presuntziorako eskubidearen babesean jardun behar izan zuen. Nolanahi ere, agiri faltsuak aurkezteak dakarren delitua gertatu ote zen erabakitzeke eskubidea autoritate judizialak dauka. Botere publikoek adingabearen interes gorenean jardun behar dute, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 4. artikulua. Erakunde honek hainbatetan adierazi duen moduan: "Adingabearen interes nagusia kontzeptu juridiko zehaztugabea da. Bertan, zehaztasun edo ziurtasun eremua adingabeei onartutako eskubideek osatzen dute". Printzipio hori aplikatzearen ondorioz, erakunde publikoek hartzen dituzten erabaki guztietan adingabearen interes nagusi zehatzari lehentasuna emango zaio gerta litekeen beste legezko edozein interesen gainetik, eta balorazio horretan adingabeen eskubideak aintzat hartu behar dira. Tutoretza bere gain ez hartzea edo tutoretza bere gain hartzen duela ziurtatzeko prozesua atzeratzea ez da adingabearen interes gorenaren mesedetan jokatzeko.

4. Adingabeen tutoretza bere gain ez hartzeak sortu dituen kalteetariko bat zera da: foru erakundeak, tutore gisa, **ez duela aurkeztu** behar zen epean adingabe horiei egoitza-baimena emateko eskabidea. Hori horrela, egoitza-baimena bere kabuz eskatu duten hainbat adingabek ikusi dute eskaerari uko egin zaiela tutoretzaren egiaztagiria ez aurkezteagatik.

Beste zenbait adingabek adin-nagusitasunera heldu dira egoitza-baimenik izan gabe. Egoitza-baimenik gabe ezin da lan egiteko baimenik eskatu, eta baimen hori beharrezkoa da erakunde eskudunei eta adingabeari ere horrenbesteko ahalegina eskatu dien gizarteratze eta laneratze prozesuarekin jarraitzeko. Araudiak ezartzen duenez, adingabeak egoitza-baimenik lortu gabe adin-nagusitasunera iristen direnean eta Babes Erakundeak haien gizarteratzea errazteko programatutako prestakuntza-ekintzetan eta jardueretan modu egokian parte hartu dutenean, erakunde horrek, aparteko zertzeladengatik, aldi baterako egoitza-baimena eman diezaieten gomendatu ahal izango du.

Ulertezina da adingabeen arretarako baliabideak eta haien laneratzea errazten duten prestakuntza baliabideak eskaintzea eta euren eskubidea den egoitza-baimenik ez eskatzea (edo, bestela, hori gomendatzea), izan ere, horri esker egin dezakete aurrera gizarteratze eta laneratzen prozesuan, bai haientzat bai abegiko gizartearentzat horren onuragarria dena, batez ere Espainiako atzeritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoak halako egoeratan baimena ematea aurreikusten duenean.

Abenduaren 30eko 2393/2004 EDren 92.5. artikulua, Espainiako atzeritarren dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren araudiak onartzen duena (araudi hori ezarriko da abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenak zehazten duen aurreikuspena betetzen ez



den bitartean. Azken xedapen horrek Espainiako atzerritarren dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen du):

“5 Adingabea adingabeen babeserako zerbitzu eskudunen eskura jarri zenetik bederatzi hilabete pasa ondoren, 2. atalari jarraiki, eta familiarekin edo jaioterrira aberriratzen saiatu ondoren, hori lortu ezingo balitz, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 35.4. artikulua aipatzen duen egoitza-baimena emango zaio. Nolanahi ere, egoitza-baimenik ez izan arren ez da oztoporik jarriko hezkuntza- edo prestakuntza- jarduerak edo ekintzak egin ditzan, adingabeen babeserako erakunde eskudunaren ustez haren onurarako izango badira.

Egoitza baimentzeak ez du adingabearen aberriratzea ekidindo geroago burutu ahal bada artikulua honetan aurreikusitakoaren arabera. Adingabeen babeserako erakunde eskudunak bere gain hartu dituen adingabeak adin-nagusitasunera heldu badira aipatutako egoitza-baimena jaso gabe eta erakunde horrek haien gizarteratzea hobetzeko antolatu dituen prestakuntza-egintzetan eta jarduera antolatuetan egoki parte hartu badute, erakunde eskudunak ohiz kanpoko baldintzengatik behin-behineko egoitza-baimena ematea gomendatu ahal du eta urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 40. j artikuluan xedatutakoa aplikatuko da bertan.

Arabako Foru Aldundia, adingabe horien tutoretza bere gain ez hartzean edo tutoretza bere gain hartu duela ziurtatzeko prozesua atzeratzean, eta haien egoitza-baimenik ez eskatzean (araudiaren arabera, egoitza-baimenerako eskubidea dute), ez da babes-erakunde gisa dituen eginbeharrak betetzen ari.

Atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoaren 35. artikulua:

“7. Ondore guztietarako erregulartzat jo da administrazio publiko baten tutoretzapean dauden adingabeen bizilekua. Adingabeari bizileku-baimena emango zaio, adingabe hori tutoretzapean duen erakundeak hala eskatuta eta adingabea bere familiarekin edo jatorriko herrialdera ezin dela bueltatu egiaztatuta ondoren. Baimen horren ondorek atzera egingo dute, adingabea adingabeak babesteko zerbitzuen esku jarri zen unean arte. Egoitzarako baimenik ez izateak ez du ekidindo adingabea izanagatik dagozkion eskubide guztiak onartzea eta gozatzea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





14/2010 GOMENDIOA, maiatzaren 25ekoa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari egina

Arabako Lurralde Historikoan babesgabezia-egoeran dauden adingabeen tutoretza bere gain hartzeko legezko betebeharra bete dezala adingabeen babeserako baliabideen arreta jasotzen hasten diren egunetik.

Haien tutorea izanagatik dagozkion babes-neurriak burutu ditzala, eta zehazki, egoitza-baimenerako eskaerak erakunde eskuduneari aurkeztu ditzala.

Adina zehazteko probak adingabearen adina ziurtasunez ezarri ezin denean bakarrik egin daitezela, eta balorazio hori gaian adituak diren pertsona independenteek egin dezatela.

Adin-nagusitasunera heldu diren adingabeei dagokienez, ohiz kanpoko zertzeladengatik aldi baterako egoitza-baimena ematea gomenda dezala, eta gomendatzen ez badu, adieraz dezala adingabeak zergatik ez duen modu egokian parte hartu erakunde horrek haien gizarteratzea errazteko egin dituen prestakuntza jardueretan eta egintza antolatuetan.

